

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Antzerkia, dantza eta haurrentzako ikuskizuna, hurrengo hitzorduak Getxo Eszenarekin (3. or.)
- > Eskubeltzek bere 35. urteurrena ospatuko du (4. or.)
- > Fadura kiroldegia berritzeko proiektuak ezagutzeko bisita gidatua herritarrentzat (5. or.)



* Romo binetaren munduko topagune bihurtuko da asteburu honetan (3. or.)

Kontzertu solidarioa. Hilak 5, igandea, 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Argia Fundazioaren alde. Sarrera: 10€.

Hitzaldia. Hilak 9, osteguna, "Hitanoa eta generoa XXI. mendean", 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean. Euskaraz.

A-
GENDA

Udalak alegazioak aurkeztuko dizkio Kirol Portuan aurreikusitako hotel berriaren proiektuari

Udalak Kirol Portuan aurreikusitako hotel berriaren proiektuari alegazioak aurkeztuko dizkio, iraileko ohiko osoko bilkuran aurreratu zuten. Bertan, udalbatzak atzera bota zuen EH Bilduk abiatutako eta PSE-EEK traxionatutako mozioa, gurutza-ontzien turismoa mugatzeko eta Kirol Portuko hotel berriaren proiektua bertan behera uzteko. Mozioak PSE-EEren, EH Bilduren eta Elkarrekin Podemos taldearen babesa izan zuen, eta EAJ/PNVren eta PPren kontrako botoak. PSE-EE horrela EAJ/PNV gobernu-kidearengandik aldentu zen, aurreko astean alkatetzaren bitartez hotelari babesa eman ziona.

Atzera botatutako mozioaren testuaren arabera, EH-Bilduk eta PSE-EEK ez dute aintzat hartzen beren ekintza-lehentasunen artean gurutza-ontzien turismoa, eta, horrekin bat etorriz, ez dituzte eskaintza hori handitzeko azpiegiturak edo politikak sustatuko. Aldi berean, horiek Portu Agintaritzak Bizkai-ko Foru Aldundiari aurkeztutako Antolamendu Plan Bereziaren aldaketa puntualaren proposamena-



ri alegazioak aurkezteko konpromisoa hartzen zuten, eta horrekin bat etorri zen Elkarrekin Podemos. Hiru alderdiak itsas bidaietako turismoaren ereduaren kontra agertu ziren, besteak beste, "ingurumenean duen inpaktuagatik eta herritarren bizi-kalitatea galtzea eragiten duelako, turistek kolapsatutako garraiobide publikoekin...", besteak beste.

EAJ/PNVren eta PPren ustez, "itsas bidaiak jarduera ekonomiko sortzen dute, ingurumen-araudi zo-

rrotzak betetzen dituzte eta aukerabat da udalerrarentzat". Nolanahi ere, PP Kirol Portuan aurreikusitako hotelaren proiektuaren aurka agertu zen, hirugarrenen esku uzten baita. EAJ/PNVek, berriz, adierazi zuen "aurreikusitako hotelak udalerrian ostatu-eskaintza handitzeko Legealdi Planean planteatutako beharrari erantzuten diola".

EAJ/PNVk adierazi zuenez, "ez da gurutza-ontzien zerbitzurako mega egitura bat izango", baizik eta gera-

tu daitezkeen bisitariak hartzeko, Getxo ezagutzeko eta aberastasuna sortzeko gaitasuna dibertsifikatuko dituen establezimendua. "Udaletik alegazioak aurkezteko asmoa dugu paisaia-integrazioa egokia dela, diseinua errespetuzkoa dela eta ingurunea ahalik eta ondoen zaintzen dela bermatzeko. Onartzen ez duguna alarmismoa da: ez gaude proiektu itxi eta mugiezin baten aurrean, baizik eta hobekuntzak eta ñabardurak izan ditzakeen hirigintza-antolamendu baten aurrean".

"Reset" izango da Getxophotoren hurrengo edizioaren leloa, 20. Urteurrenean

Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdiak 20 urte beteko ditu 2026ko ekainean. PAUSA, PLAY eta REC botoiak sakatu ondoren – aurreko hiru edizioetako gaiak –, hurrengo edizioaren hari gidaria RESET izango da, sistemak berrabiarazteko aukera ematen digun tekla, antolatzailerik iragarri duten bezala.

Maria Ptqk komisario dela, laugarren urtez jarraian, oraingo honetan, jaialdia ospatzeaz gain, atzera begiratu eta balantzea egitea planteatzen dute, artxiboak berrikusteko, erregistratutako aldaketak



aztertze eta, aldi berean, energia berriarekin proiektatzeko.

Getxophoto maiatzaren 28tik ekainaren 21era egingo da, eta bere Open Call deialdian izena emateko epea ireki du, azaroaren 6ra arte. Deialdi horrek mundu osoko ikusizko artistei beren lana erakusteko aukera eskaintzen die. Epaimahaiak 12 proiektu finalista eta 3 irabazle hautatuko ditu. Azken horiek jaialdiaren programazio artistikoaren parte izango dira. Informazioa: www.getxophoto.com



URRIAK 2 OSTEGUNA

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Nancy Grace Roman" (gaztelera) Nexo Teatrotrekin. Sol Magunak interpretatua, eta ez Eguzki Zubiak, Getxoberriren aurreko alean akats baten ondorioz argitaratu genuen bezala. 10€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 18:00-19:00, Bariko San Nikolas basilizara, Portu Zaharrean (gaztelera). Doan. Erreserbak: ondarebabesa@ondarebabesa.com

URRIAK 3 OSTIRALA

Aurkezpen literarioa. 18:30ean, Algortako Kultur Etxean, "El órgano" liburuen aurkezpena (gaztelaniaz), 2024ko Ramiro Piniña Nobela Laburreko Saria, Diego Sanchez Aguilar egilearekin.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 17:00-18:00, Punta Begoña Galerietara. Doan. Erreserbak: www.puntabegonagetxo.eus

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Escape Room" (euskaraz) Zuhaitz Gurrutxaga, Oihana Maritorea, Nerea Gorriti eta Iñigo Aranbururekin. 12€.

URRIAK 4 LARUNBATA

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Casting Lear" (gaztelera) Barco Pirata Producciones eta Teatro de la Abadiarekin. 15€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 11:30-12:00, Nuestra Señora del Carmen udal hilerrira (gaztelera). Doan. Erreserbak: 94 491 08 00, infoturismo@getxo.eus

Fuerza Viva Fest. Aire zabaleko indar-entrenamenduen jaialdia. Ereagako kalistenia parkean (igogailuaren aurrean). 11:00etatik 14:00etara "Ereaga Challenge", adin guztiakotako kirolarietako amateur mailako lehiaketa. 17:00etatik 19:00etara, "Statics Cup 2025", lehiaketa profesionala. Informazioa: portalavivafest

Euskal Komikiaren Eguna, euskaldekoko euskarazko komikigintza ikusgarri egiteko. 12:00etan, "Zuri", Maite Mentxaka & Garazi Basterrebearen eskutik, Casal liburutegian (Aurrezki Kutxa kalea, 24, Romo). Doan.

URRIAK 5 IGANDEA

Getxo Eszena. Haur ikuskizuna. Muxikebarrin, 18:00etan, "Semaforoa" (euskaraz) Logela Multimediarekin. 4 urtetik aurrera. 8€.

Kontzertu solidarioa. Argia Fundazioaren alde. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. José Antonio Urdiain (tenorra), Marta Ubieta (sopranoa), Patricia Inchaustegui (sopranoa), Aritz Lekerika (baxua) eta Alberto Sáez (pianoa). Sarrera: 10€. Salgai: Argia Fundazioan eta Algorta Batzoki Tabernan. Txarteldegian, kontzertua baino ordu bete lehenago. Antolatzailea: Itxartu Taldea.

URRIAK 8 ASTEAZKENA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, (Villamonte), "Lo peor que le puede pasar a un niño" (gaztelera) antzerki testuaren aurkez-

pena, Javier Liñera egilearekin.

URRIAK 9 OSTEGUNA

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Nancy Grace Roman" (gaztelera) Nexo Teatrotrekin. 10€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 18:00-19:30, "Getxoko Andra Mariko ingurua" Andra Mariko eleizatik (euskaraz). Doan. Erreserbak: 627 89 93 20, toponimia@gmail.com

Getxo Eszena. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Go Figure", Sharon Fridmanekin. 10€.

Hitzaldia. "Hitanoa eta generoa XXI. mendean", 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean. Hizlaria: Garbiñe Bereziartua Etxebarria, EHUko irakaslea eta ikertzailea. Euskaraz. Doakoa.

URRIAK 10 OSTIRALA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 11:30-12:00, Nuestra Señora del Carmen udal hilerrira (gaztelera). Doan. Erreserbak: 94 491 08 00, infoturismo@getxo.eus

Kontularien kluba. Denboraldiaren hasiera. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Sucedió en la biblioteca" (gaztelera).

Aurkezpen literarioa. Benta gunean (Angel etorbidea 49), 19:30ean, "Senderismo cultural por Getxo" liburuen aurkezpena, Iñaki Fernández Arriaga egilearen eskutik.

Zine-foruma. Cultura y sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "La persona ante las dificultades". Juan Antonio Bayonaren "Lo imposible" filmaren proiektzioa (gaztelera). Hizlaria: José Manuel Gutiérrez (Arte Historiaren irakaslea). Doan. Antolatzailea: iCmedia Euskadi. icmediaeuskadi.es

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Lo peos que le puede pasar a un niño" (gaztelera). Ekoma Teatro & Javier Liñera. 10€.

URRIAK 11 LARUNBATA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 11:00-13:00, "Historias secretas de las rocas de Palacio", Bizkaia Zubitit (gaztelera). Doan. Erreserbak: 666 85 77 91, ekobideak@gmail.com Bisita gidatua. 17:00-18:00, Punta Begoña Galerietara. Doan. Erreserbak: www.puntabegonagetxo.eus

VII. Getxo Dantzan. 11:30-20:00, Santa Eugenia plazan, kalejira, dantzaldia, igel-topa eta txapel jaurtiketa, herriko bazkaria eta erromeria.

Ipuin kontalaria. Storytime. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "Phanton manor" (ingelesez). 3-7 urte. Doan. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Kontzertua. 19:30ean, San José parrokiaren, "Orfeón condal de Noreña" (Asturias) eta "Coral Ondarreta Abesbatza" (Getxo) taldeen emanaldia.

Getxo Eszena. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Lost letters", Lucia Lacarra Balletekin. 18€.

Bizilagunak. Autobusa Aniztasunaren aldeko marxa inklusibora, Lasarte Orian, 07:30ean Algortatik eta 07:50ean Areetara-La Avanzadatik. 2€. Inskripzioa: 622 433 08

URRIAK 12 IGANDEA

Getxo Eszena. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Camino a la Meca" (gaztelera), Lola Herrera, Natalia Dicenta eta Carlos Olallarekin. Sarrerak agortuta.

Ertzaintzaren, udaltzainen eta ordezkari publikoen aurkako erasoen gaitzespena

Udalbatzak iraileko saioan udal-gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) aurkeztutako mozio bat onartu zuen, kultura demokratikoaren eta errespetuan oinarritutako bizikidetzaren printzipioei jarraikiz, Ertzaintzaren, udaltzainen eta ordezkari publikoen aurkako eraso, seinalamendu eta ekintza bortitzak kondenatzeko. Proposamena egin zutenen eta PPren babesa jaso zuen mozioak, eta, bestalde, kontra agertu ziren EH-Bildu eta Elkarrekin Podemos.

Mozioaren testuak "Ertzaintzak eta udaltzainek herritarrak babesteko egiten duten ezinbesteko lana" aitortzen du, eta betetzen duten lan horren gaineko babes osoa adierazten du. Era berean, dei egiten du "Ertzaintzaren, udaltzainen eta ordezkari publikoen aurkako jarrera bortitzak eta mehatxuak amai daitezen", eta baieztatzen du "Ertzaintza euskal autogobernuaren adierazgarri eta polizia hurbil eta demokratikoaren eredu dela".

EH-Bilduk transakzio-mozioa aurkeztu zuen "edozein kritika edo adierazpen herrikoi eraso moduan interpretatzeko instrumentalizazio politikoa" kondenatzeko. Transakzio-mozio hori baztertu egin zuten. Azken talde horrek eta Elkarrekin Podemosek

adierazi zuten, "hausnartu beharko litzateke zein polizia-eredu nahi dugun". Horiek gaineratu zuten, "mozioak gizartearen zati bati eraso egitea eta Ertzaintzak gaur egun duen arazoari (baliabide falta eta abar) irmoki ez heltzea du xede".

Besalde, PPK udal-gobernuaren proposamena EH-Bilduren aurka zihola baieztatu ondoren, EAJ eta PSErekin adostasuna azaldu zuen adierazitako guztian. Hala ere, Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren aipamena falta zela nabari zuen, horiek ere herritarren segurtasuna zaintzen duten aldetik.

Udal gobernuak gogorarazi zuenez, "bizikidetzaren demokratikoa defendatzeari buruz ari gara. Ez da zalantzan jartzen kritika edo protesta bakezalea egiteko aukera, hori zilegi eta beharrezkoa baita demokrazian. Kritikatzeko gauza bat da, baina oso bestelakoa da eraso edo mehatxu egitea... Bizikidetzaren gizartearen oinarria da, eta poliziak arduratzen dira hura zaintzeaz eta askatasunak baldinartzeaz".

Beste mozio batzuk
PPk mozio bat aurkeztu zuen Udalak arlo desberdinetan zerbitzu-kartak onartu eta argitaratu ditzan eta mozio hori ontzat eman zuten.

Udal gobernuak adierazi zuen bat zetorrela mozioaren mamiarekin, baina, erantzukizunagatik, lehenik eta behin Udala garatzen ari den eraldaketa digitaleko prozesua amaitu behar dela, ondoren bermekin eta sinplifikatuta dauden eta neurtzeko modukoak diren prozesuekin lan egiteko.

Era berean, PPren beste mozio bat onartu zuten, datorren urteko urriaren lehen, Adinekoen Egunean, elkarrekin laguntzarekin batera, haiek diseinatutako edo asmatutako programa zabala ospatzeko. Gobernu taldeak gogorarazi zuenez, kolektibo horri arlo desberdinek ematen dioten babesa nabarmena da. Gainera, Udalak orain Zahartze Aktiboko teknikari bat kontratatu duenez, Getxo Lagunkoia programa finkatu eta indartu ahal izango da, Getxo adinekoekin lagunkoia den hiria bihur dadin.

Azkenik, aurrera atera zen Elkarrekin Podemosek etxebizitza hutsei OHZren erre-kargua aplikatzeko planteatutako mozioa, baina Udal Gobernuak ziurtatu zuen hori aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango dela OHZren Ordenantza Fiskala aldatzea, horrek dakarren prozedura administratibo guztiarekin.

Koloreen argiztapena hainbat arrazoirengatik

Areetako kaia eta udalerriko igogailu publikoak urdin turkesaz argiztatuko dira urriaren 7ko eta 8ko gauean, Dislexiaren Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta. Bestalde, hilaren 14 eta 15ean arrosaz eta urdinez argiztatuko dira, Haurdunaldiaren, Jaioberrien eta Jaioberrien Heriotzaz Kontzientziatzeko Munduko Eguna ikusarazteko; urriaren 21ean eta 22an, berdez, Phelan-Mc Dermid Sindromearen Nazioarteko Eguna dela eta (garapen kognitiboari eta psikomotorrari eragiten diona); eta hilaren 26an eta 27an, laranja, TDAH-AGHaren Eguna dela eta.

2025 GETXO BONO

AURREZ AURRETIK GUTXIENEZ 20€-KO EROSKETA BAT EGIN IRAILEKO 19TIK URRIAREN 8RA

Getxo *bizi ezazu*

TRUKEA: Urriaren 10etik azaroaren 21era arte.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Romo binetaren munduko topagune bihurtuko da asteburu honetan

Asteburu honetan, urriaren 3tik 5era, Romon izango da Komiki Azokaren beste edizio bat. Santa Eugenia plazan, Ibaiondo kalean eta Romo Kultur Etxean merkataritza-eskaintza zabala eta doako jarduerak izango dira, eta sektoreko artista eta profesional onenek parte hartuko dute.

Merkataritza-guneak 40 salmenta-postu bilduko ditu, eta, horietan, liburu-dendek, argitaletxeek, merchandising establezimenduek eta fanzineek, besteak beste, azken nobedadeak aurkeztuko dizkiote publikoari, beren serieak osatu, komiki zaharrak eta bildumagileen aleak erosi eta komikigintzarekin zerikusia duten era guztietako artikuluak aurki ditzaten.

Romo Kultur Etxean hurrengo jardueren programazioa izango da: berrikuntzen aurkezpenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, proiektzioak, tailerrak eta erakusketa bat. Sektoreko enpresa nabarmenetako batzuek jarduera horietan parte hartuko dute, baita espero diren sinadura-txandetan ere, non zaleek beren artista gogokoenak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango duten. Haur eta helduentzako tailerrak ere ez dira faltako, eta, aurten, berrikuntza gisa, profesionalentzako portfolioak berrikusteko tailer bat ere egingo da.

Atal artistikoari dagokionez, Paco Roca, Marika Vila, Raquel Gu, Mamen Moreu, Sebas Martín, Fernando Blanco, Álvaro

Martínez Bueno, Irene Márquez edo Laura Pérez -azken hori 2025eko Azokako kartelaren egilea- jasoko ditu aurten Azokak, eta argitaletxeek gonbidatutako sortzaileak gehituko zaizkie. Gainera, Rubén Pellejero, *Corto Maltés* album sorta berriaren ilustrazio lanagatik ezaguna eta Josune Muñoz dibulgatzailea ere Getxon izango dira. Biek Komikigintzan egindako ibilbideagatik jasoko dute aurtengo ohorezko saria.

Romo Kultur Etxean jendeak *Aventureras gráficas* erakusketaz gozatu ahal izango du, Natacha Bustos, María Medem, Ana Penyas, Laura Pérez eta Nuria Tamarit ilustratzaileen lanak biltzen dituen.

Antzerkia, dantza eta haurrentzako ikuskizuna, hurrengo hitzorduak Getxo Eszenarekin


Getxo Eszena Arte Eszenikoen Jardunaldiak hasi dira jada Muxikebarrin, eta programazio zabala aurkeztuko dute, publiko guztientzat, urriaren 26ra arte.

Ostiral honetan, hilak 3, Zuhaitz Gurrutxaga, Oihana Maritorea, Nerea Gorriti eta Iñigo Aranburu igoko dira oholtzara *Escape Room*, adiskidetasuna noraino irits daitekeen erakusten duen euskarazko komedia beltza. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Larunbatean, hilak 4, ordu berean, Andrea Jiménez sortzailearen *Casting Lear* antzezlanaren txanda izango da. Antzezle eta gizon belaunaldi oso batekin elkartzeko gune bat irekitzen du, aitatasunari, maitasunari eta barkamenari buruz hausnartzeko, antzezlan ausart bezain ludiko batean. "Wi-

liam Shakespeareren "Lear Erregea" klasikoaren bertsio-simulakro bat da", dio egileak. Sarrera: 15 euro.

Igandean, hilak 5, publiko gaztee-



naren txanda izango da. 18:00etan, Logela Multimedia konpainiak *Semaforoa* euskarazko muntaia aurkeztuko du. Argi, musika, marrazki bizidun eta sorpresaz betetako ikuskizuna da, semafoerok bizitza propioa dute eta emozioak martxan jartzen dira. Jolasaren eta parte-hartzearen bidez, haurrek mundu dibertigarri eta magiko bat ezagutuko dute, bere irudimenaren erritmoan distira, soinua eta taupadak egiten dituen. Sarrera: 8 euro.

Datorren astean, ostegunean, hilak 9, *Go Figure* dantza ikuskizunaren txanda izango da, Sharon Fridman konpainiarekin. Ikuskizuna aniztasunaren aldeko mugimenduaren ospakizuna da eta benetako dantza aldarrikatzen du, gorputzetik sortua. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Datorren urriaren 12an, igandean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udagoieneko faseko bostgarren saioa izango da Muxikebarriko Arrigunaga aretoan. Bertsolariak Ibai Amillategi, Janire Arrizabalaga, Aitor Esteban, Mikel Goirieta, Peio Moli-nuevo eta Koldo Muñiz.

Ondoren finalaurrekoak helduko dira eta finala abenduaren 20an izango da Bilboko Casillan. Getxoko saioa 17:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 3 eta 9 eurokoen artekoak dira. Informazioa eta sarrerak: www.bertsozale.eus

Egizu elkartearen jarduerak

Ikasturte berriari begira, Egizu elkarteak hainbat jardura jarri ditu abian euskararen erabilera sustatzeko. Alde batetik, astelehen eta asteazkenetan, 19:40tik 21:10era, yoga ikastaroa izango da Aldai Patronatuaren egoitzan, eta astelehenetan, egur tailua Basagoiti etorbideko 69an, 17:30etik 20:30era. Berbalaguna eta Gurasolaguna taldeak osatuko dira, euskara ikasten ari diren eta praktikatu nahi duten pertsonak euskaldunekin biltzeko, jardura bat egiten duten bitartean. Horrez gain, hilean behin, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), TXOKOA zikloko hitzaldiak izango dira liburu bati (nobela, ipuina, saiakera edo poesia) buruz, beren idazleekin edo itzultzaileekin. Leku berean, baina hileko hirugarren asteazkenetan, Idazaleak tailerlean euskarazko sormena eta idazketa landuko dituzte, Idoia Carrriñanaren eskutik, eta Klubaren saioak ere gidatuko ditu, hileko bigarren astelehenetan, euskarazko irakurketa errazaren inguruan. Informazioa/izenematea: www.egizu.eus

Euskara familian

Bestalde, familietan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, Udalak eta Egizuk sustatutako Sendi ekimenak jardura ugari eskaintzen jarraituko du 2025/2026 ikasturtean. Besteak beste, Bertsotan; *Ikusi Mikusi* azokarako irteera, urriaren 10etik 12ra; *Pop Up* tailerra urriaren 18an; erlaxazio eta jolas tailerra azaroaren 15ean eta 29an; eta Gabonetako apaingarriak abenduaren 20an. Informazioa eta inskripzioak: labur.eus/udazkenekojarduerak25



San Nikolas plazan izango den festak emango dio hasiera Eskaut taldeak ikasturte berrirako aurreikusi duen jarduera egitarauari

Eskubeltzek bere 35. urteurrena ospatuko du

Eskubeltz Eskaut Taldeak 35 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Datorren igandean, urriak 5, hasiko dira San Nikolas plazan, ikasturte hasierako jai klasikoarekin. Algortako gazte-txoek jolasak, tailerrak... izango dituzte. 11:00etatik 14:30era, adin guztientzat zuzendutako jarduerak izango dira: slackline tailerra, soka ahula, neska-mutilek oreka trebetasunak erakutsi beharko dituztelarik; twister erraldoia; badmintona; cornholea eta 'jenga' erraldoia, besteak beste. Kamisetak apaintzeko tailerra eta hamaiketako ere antolatu dituzte.

Aukera hau une egokia izango

da nahi duten familiek beren seme-alabei ikasturte berrian izena emateko; izan ere, plazan izena emateko mahai bat jarriko dute, monitorea batekin batera. Taldeko koordinatzaile Ainhoa Revueltak azpimarratu duenez, "ikasturte hasierako jaia une egokia da familiek beren seme-alabak apuntatzeko, parte hartu nahi duten haur guztiak hartzeko dugun gaitasuna handitu baitugu". Hala ere, beti saiatzen gara tarte bat egiten ikasturte erdian iristen direnei". Izena taldearen webgunean ere eman daiteke.

Aurreikusitako jaiaren ondoren beste jarduera batzuk izango dira, aurrerago ezagutzera emango dituztenak.

Eskubeltz

Eskubeltz Getxoko bi Eskaut taldeetako bat da. 1991n sortua, 8 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak aisialdian hezteko du helburu. Asteburuetan jarduerak, mendirako irteerak eta proiektu humanitarioak egiten dituzte, besteak beste, haurren eta gazteen adinaren arabera. Gaur egun, taldeak begirale talde bat du, 18 eta 28 urte bitarteko 15 boluntariok osatua, familien eta begirale ohien batzorde batekin babestua, eta 120 neska-mutil inguruk osatua. Ikastaro guztiak urrian hasi eta uztailean amaitzen dira, ingurune natural batean garatutako kanpamentu batekin, kanpin-dendekin eta ibai batez eta mendiz inguratuta ibilbide ibiltariak egiteko.

Beste Eratzunketa-jardunaldi bat Boluen

Bolueko Esfortzu Konstanteko Eratzun Estazioa urriaren 4ean, larunbatean, irekiko da Hegaztien Munduko Eguna ospatzeko, Udaleko Ingurumen Zerbitzuak sustatutako *Getxonatura*, ezagutu eta zaindu jardunaldien beste jarduera batean. Jardunaldiaren helburua da Bolueko hezeguneko hegazti-fauna, bere arazoak eta egiten diren jarduerak ezagutzera ematea.

Goizeko lehen orduetan joatea gomendatzen da. Orduetgia 09:00etatik 12:30era izango da eta ez da aurretiko izenematea behar izango.



Neguko ordutegia turismo bulegoan

Ereagako Turismo Bulegoa dagoeneko martxan dago irailaren 20an izandako ekintza bandalikoaren ondoren, eta neguko ordutegiarekin funtzionatzen du. Maiatzaren 31ra arte, astelehenetik

larunbatera, 09:30etik 14:30era eta 15:00etatik 18:00etara. Igandean: 09:30etik 14:30era Bizkaia Zubia- ren ITG astelehenetik igandera irekiko da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Erakusketa eta aurkezpen literarioa Bentan

Benta eraikinean (Angel etorbidia, 49) Mikel Palacio (Muskiz, 1962) ASPARBI Bizkaiko Parkinson Gaixoen Elkarteko bazkidearen erakusketa izango da datorren urriaren 31ra arte. Palacio zentzumenak erne-erne dituela bizi da. Ezagutzen dutenek esaten dutenez, "bere koadroetatik haratago, bizitza besarkatzeko bere modua inspiratzen du. Parkinsonarekin naturaltasunez bizi da, aurretiritziak hautsiz eta muga asko irudimenezkoak direla gogoraraziz. Bere pinturan, egunerokotasuna goratu egiten da: itzal bat, isla bat edo keinu sinple bat emozioz betetako une bihurtzen dira. Ez du inpresionatu nahi, konektatu baizik, eta lotura horretan bere arimaren zati bat parte-

katzen du". Erakusketa asteazken, ostegun eta ostiralean izango da ikusgai, 17:30etatik 20:00etara.

Bestalde, ostiralean, hilak 10, 19:30ean, *Senderismo cultural por Getxo* izenburuko liburua aurkeztuko du Iñaki Fernández Arriaga egileak. Gure herria hobeto ezagutzeko ibilaldi literario bat da.



Lituaniako prestakuntza, Moviendote Getxo elkarteak sustatua

Azaroaren 30etik abenduaren 6ra, Lituaniako Trakai hirian nazioarteko prestakuntza-tailer bat egingo da, Erasmus+ CJ SUPERHEROES proiektuaren barruan. *El Periodismo Ciudadano como fórmula de activación local* izenburupean, Getxoko Moviendote elkarteak sustatutako doako prestakuntza-esperientzia horrek hezkuntzarako eta gizartea eraldatzeko tresna gisa herritar kazaritza munduan murgiltzera gonbidatzen ditu formatzaileak, boluntarioak, gazte langileak edo helduen prestakuntzako dinamizatzaileak, bai eta tokiko asoziazionismoaren esparruko pertsona aktiboak ere.

Astebetez, komunikabideak aztertze, eduki propioak sortze eta komunitateetan parte-hartze aktiboa sustatzeko modua aztertuko dute. Prestakuntza ingelesez emango da, eta, horrez gain, Lituaniako aberastasun historiko eta naturala ezagutzeko kultura-jarduerak ere egingo dituzte.

Programak, nazioarteko ikaskuntzarako espazio bat eskaintzeaz gain, hainbat herrialdeetako pertsonekin sareak sortzeko aukera eskaintzen du, komunikazioaren eta aktibismo sozialaren inguruko interesak partekatuz. Amaitzean, partaidetza-ziurtagiri bat emango da.

Informazio gehiago eta izen-ematea (zabalik urriaren 15era arte): proyectosmoviendote@gmail.com helbidean edo whatsapp bidez 608 685 470 telefonoan.



Fadurako kiroldegia berritzeko proiektuak ezagutzeko bisita gidatua herritarrentzat

Getxo Kirolakek bisita gidatu bat antolatu du datorren asteazkenean, hilak 15, 18:30ean, Fadurako kiroldegia kanpoaldeko eraldaketa prozesua ezagutarazteko. Bisita hau herritar guztientzat zabalik dago, eta ez da beharrezkoa udalaren kirol instalazioetarako abonurik izatea. Ibilbidean zehar, honako hauek ezagutaraziko dituzte: Tiki Toki Zentroa gizarte ekipamendu berria, padel eta tenisez estalitako etorkizuneko pabiloiaren proiektua, atletismo eta errugbi guneko harmailen eraikin berriarena (laster hasiko dira eraikitzen) eta, azkenik, frontoietako eraikina egonkortzeko eta egitura indartzeko obraren aurrerapenak. Esku-hartze horri esker eraikina osorik eraberritu ahal izango da.

Thinking Fadura prozesuaren tes-

tinguruan kiroldegiaren kanpoalde berritzeko proiektuak bertatik bertara ezagutzeko gonbidapena egin zaie herritarrei, eta uda aurretik antolatu ziren bi bisitaldiei gehitu behar zaie. Bisita horietan

Osasun zerbitzua berriro martxan Faduran

Getxo Kirolakek osasun zerbitzua berreskuratuko du urrian, eta Faduran fisioterapia eta errehabilitazio saioak eskainiko ditu, banaka zein taldean. Pandemia garaian bertan behera geratu zen zerbitzuaren eskaintza abonatuentzat eta abonatu gabekoentzat da.

Banakako tratamenduen kostua 45 euro orduko izango da (gehi sarre-raren 3 euro abonatu gabeko pertsonentzat), eta talde txikietan errehabilitatzeko programa bat diseinatu da (gehienez 8 pertsona) min irau-

Getxo Kiroletako 100 abonatu inguruk parte hartu zuten.

Izena emateko: urriaren 10a baino lehen thinkingfadura@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez.

korrak edo gaitz kronikoak dituzte- nentzat. Tratamendu horiek pazien- te bakoitzari gomendatzen zaion lan espezifikoa integratuz diseinatu dira. Prezioa hilean 60 eurokoa (saio bat astean) izango da eta 99 eurokoa (astean bi saio).

Datozen hilabeteetan beste zerbitzu batzuk gehituko dira (esfortzu probak, erditze aurreko eta osteko gimnasia, zoru pelbikoa eta nutrizioa). Kontaktua: 683 57 15 60 (baita whatsapp) eta osasunzerbitzuagk@gmail.com

laz 1.852 ikaslek parte hartu zuten programan

Multikirolen denboraldi berria hasi da

Datorren igandean, urriak 5, hasiko da Multikirolak denboraldia, Getxo Kirolakek udalerriko kirol klubekin eta ikastetxeekin elkar-lanean antolatzen duen eskola kiroleko programa, duatloiarri eskaintako topaketa batekin. Multikirolak programaren denboraldi berriak hainbat kirol-modalitate-tako 23 topaketa eskainiko dizkie ekainera arte Lehen Hezkuntza-ko ikasle getxotarrei (bai herriko ikastetxeetan ikasten dutenei, bai beste udalerrri batzuetako ikaste- txeetan ikasten dutenei).

Kirol klubek eta ikastetxeen inplikazioari esker, iaz 1.852 ikas- lek parte hartu zuten jarduera horietan, eta Getxo Kirolakek kirol sorta zabala ezagutarazi nahi du, adin handiagoan horie- tako batean espezializatu ahal izateko.

Interesa duten pertsonak Getxo Kirolakekin harremanetan jar daitezke, zalantzak argitzeko eta jardueretan izena emateko, www.getxomultikirolak.eus webgunea- ren bidez.



Punta Galea Txirrindulari elkartearen Jaialdi Solidarioa

Larunbat honetan, urriak 4, Punta Galea Txirrindulari Elkarteak Faduran urtero antolatzen duen Jaialdi Solidarioa ospatuko da.

09:00etatik 14:00etara, taldekako erlojupe-koa lehiatuko da belodromoan eta 15 itzuli emango dute. Prezioa 100 euro izango da talde bakoitzeko (izena emateko: <https://punta-galea.com/eu/festival-solidario/>). 16:00etatik 18:30era ziklo kros txikiko proba bat egingo da, 09:00etatik 21:00etara txosna, 12:00etatik 14:00etara Kutxus Areatxu fanfarria, paella 13:30etik aurrera (6€/ platera), eta Josu DJ 17:00etatik 20:00etara. Bildutako funtsak La Sonrisa de Naia izeneko elkartera joango dira. Elkarte horrek gaixotasun arraroen talde bat ezagutzera eman nahi du, oso ohikoak ez izan arren, gure inguruko haurrei eragiten baitie.

Getxoko Udalaren Nazioarteko Xake Opena

Getxoko Xake Klubak Getxoko X. Nazioarteko Xake Opena antolatu du, Fadurako Tiki Tokin ospatuko dena ostiral honetan hasi eta datorren ostiralera arte. Partidak ostiralean hasiko dira, 18:00etan, baina ordu bete lehenago azken fasera sailkatzeko atariko txanda bat egongo da.

Lehiaketa sistema suitzarra izango da, zazpi txandekin. Egun bakoitzean jardunaldi bat jokatuko da, hilaren 4an izan ezik, ez baita lehiaketa egongo. Igandean 10:00etan hasiko da berriz, eta gainerako lanaldiak arratsalde erdian izango dira. Partida bakoitzak ordu bete iraungo du, mugimendu bakoitzeko 30 segundoko mugarekin.

Algortako XLII. Ibilaldi Neurtua

Datorren igandean, hilak 12, Itxartu Taldeak antolatzen duen Ibilaldi Neurtua ospatuko da. Helduentzako irteera 08:00etan izango da Batzokiko patioetik, eta 10 urte arteko haurrentzat 10:30ean. Izena emateko epea hilaren 8ra arte luzatuko da, egun hori barne, www.itxartu.eus webgunearen bidez soilik (ezin da izena eman ibilaldiaren egun berean).



I. Saratxu, zilarra munduko Shotokan txapelketan

Isusko Saratxu getxotarrak zilarrezko domina lortu zuen beteranoren +40 kategorian eta kate modalitatean Munduko XVIII. Karate Do Shotokan txapelketan, duela gutxi, San Fernandon (Cadiz). Hitzorduak 30 herrialdetako 800 kirolari baino gehiago bildu zituen.

Saratxu Algortako Kuu Shi Kan karate eskolaren jabea da, eta 40 urte baino gehiagoko esperientzia du.

Shotokan karatearen jatorrizko modalitatea da, zaharrena eta munduan praktikatzailer gehien dituen. Gainera, borroka-diziplina hori tradizio handiko bizimoduarekin lotzen du. Kate-tan hainbat aurkariren aurkako irudimenezko borroka-eskemak garatzen dira, eta borroka horien berezko mugimenduak gauzatzen dira.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, MUGIKORTASUNAREKIKO ETA IRISGARITASUNAREKIKO KONPROMISOA



Duela egun batzuk, hainbat ekintza izan dituen mugikortasunaren astea egin dugu Getxon. Ekimen hori Euro-patik bultzatzen dute eta gustura parte hartzen dugu urtero. Mugikortasun jasagarriaren, garraio publikoaren, bizikletaren edo oinez ibiltzearen garrantziaz jabetzeko ekimena da, baita gure ingurunea eremu horretan edo horretatik zaintzeko beharraz jabetzeko ere.

Eta udal-gobernua, Getxoko EAJ-PNV, duela bi urte baino gehiago Getxoko bizilagunekin hartutako konpromisoa betetzen ari da: "Erreferentia da mugikortasun jasagarriari; izan ere, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu ditu, Mesedeetako kaleko aparkalekua handitu eta horren prezioak berrikusi, hiri-autobusaren proiektu pilotu bat bultzatu, bidegorri berriak egin eta hirigu-

neen zati batean oinezkoentzat egin".

Egitateak ditugu berme, eta pixkanaka ikusten ari gara hori; izan ere, batzuetan, multzo osoa ikusten ez badugu, badirudi ez dela jarduten. Areetako erdigunea gune askoz atseginagoa da eta pertsonen ongizatea du jomuga, eta Romon oinezkoentzat egindako guneak eta Zugatzarte etorbidearen aldaketa bikaina osatzen ditu. Orain, lanak amaitzear daude Bidebarrietan eta Joaquín Arellanon, eta askoz irisgarriagoak eta erosoagoak diren oinezkoentzako ibilbideak sortuko dituzte.

Seguruagoa eta irisgarriagoa den mugikortasuna lortzeko lanak ditugu Getxoko Mugarra, Matxitxako, Galeako errepedea eta Aingeruaren etorbidea kaletan, non oinezkoek, txirrindulariek

eta bisitariak askoz baldintza hobekin gozatuko duten.

Bidezabalen 1. eta 2. arrapalen ordezkapena aurrera doa azkenik, eta dagoeneko jarri ziren eta ondo funtzionatzen duten bietan gozatu genuen zerbitzu berriak osatuko dute. Inbertsio bat, 610.000 eurokoa, eta azaroan lau arrapala erabat berriak martxan egongo dira.

Negurin mugikortasuna hobetzeko eta trafikoa berrantolatzeko obrak egingo dira, geltokiaren ondoko biribilgunearen inguruan, segurtasuna eta bideak hobetzeko. Edo Aiboako igogailuen ondoko oinezkoentzako bidea berreskuratzeko eta eguneratzeko.

Horixe duzue EAJ-PNVk hartutako konpromisoaren irudi azkarra.



AIBOA II INSTITUTU ZAHARRAREN LURSAILETAN BOLUE IV FUTBOL-ZELAIA ERAIKITZEA

Irailaren 25eko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu genuen **Aiboa II institutu zaharraren lursailetan** kirol-instalazio berriak eraikitzeko. Gure proposamena argia da: espazio horrek **futbol-zelai berri bat** hartzea, **Bolue IV**, udal-brigaden egoitza bihurtu behar, gobernu-taldeak nahi duen bezala.

Institutuaren eraisketaren ondorioz **6.500 m² baino gehiago** daude eskuragarri, eta bizilagunen zerbitzura jarri behar dira. Uste dugu **Getxoko kirol-instalazio gehiago behar dituela** eta aukera paregabea dela eskaera horri erantzuteko. Horregatik, **brigadak**

auzo erdian kokatzearen aurka gaude, horrek kamioi, makineria astun eta material kaltegarri gehiago ekarriko bultzatzen du bizitegi-gune batera, **eta bizilagunen lasaitasuna hautsiko litzateke**. Bolue IV berriak belar artifizialeko zelaiak, aldagelak, dutxak eta harmailak izango litzateke, Fadurako instalazioak osatuko litzateke eta udalerriko kirol-jarduerara handituko luke. Horregatik guztiatik, brigaden aurrekontua getxotarrantzako kirol-proiektu batera bideratzeko eskatzen dugu. Hala ere, alderdi guztiek **gure proposamenaren aurka** bozkatu zuten.



ehbildu

KIROL PORTUA HORRELA IMAJINATZEN DUZU?



Ba errealitate bihurtu daiteke. Bilboko Portu Agintaritzak 26 metroko eta 8 solairuko hotela eraikitzea aurreikusten du Getxoko kirol portuan, horrek dakarren inpaktu bisualarekin. Proiektuaren helburua da Getxo "home-port" bihurtzea, hau da, gurutzatzen helmuga eta irteera izatea, hau guztia Getxoko Udaleko elkarlanarekin. Hotel honek 4 izar eta 200 gela izango litzateke, eta bertara joango lirateke kruzeroetako langile eta bidaiariak. Erakundeen xedea baita gurutzatzen turismoari bultzada ematen jarraitzea,

inolako mugarik gabe.

EH Bildutik azpimarratzen jarraitzen dugu: ez dugu turismo-eredu hau babesten, ez baita jasagarria eta orekatua. Gehien kutsatzen duen garraibidea izateaz gain, turistifikazioa sustatzen du, metroan pilaketak sortzen ditu... Azken osoko bilkuran proposatu genuen Udalak alegazioak aurkeztea proiektuari, baina beste behin ere PP agertu zen EAJ erreskatatzeko, eta gure mozioaren kontra bozkatu zuten. EH Bildu moduan aurkeztuko ditugu.



PORTUKO LEHEN LERROAN HOTEL BAT ERAIKITZEARI UKO EGITEN DIOGU

Aurreko astean, Getxoko Udaleko osoko bilkuran eztabaidatu genuen zer turismo-eredu nahi dugun udalerrirako, Kirol Portuan hotel bat eraikitzeko aukeraren harira. Udal Talde Sozialistako kideok **udalerriarren ostatu-edukiera zabaltea defendatzen dugu, baina ez edozein prezioan**: ez portu-lurzoruan eta ez proiektua gauzatzeko interes orokorra argudiatuta.

Jasagarria, inklusiboa eta kalitatezkoa den turismo baten alde egiten dugu, Euskadi 2030 Turismo eta Merkataritza Estrategiarekin eta NBEk bermatutako Kode Etikorekin bat datorrena. Horregatik ez gatoz bat Kirol Portuko hotel-proiektuarekin. Ez da soilik eraikin bat, **eredu aldaketa dakar, hirigintza- eta ingurumen-inpaktu handiarekin**. Uste dugu gure hori aisialdirako gune batera bideratu

behar dela.

Home port (gurutzaldien egoitza-portua) bihurtzea ez dator bat Getxoko herritarren interes orokorarekin. Euskadin, gurutzatzen **turismoaren % 3 inguru baino ez da**. Horren eragina kontuan hartu behar dugu, lehorreratze masiboek espazio publikoa eta zerbitzuak betetzen dituzte, eta oso kutsatzailea den garraibidea da.



JENDERIK GABEKO ETXEAK

Etxebizitza huts bakoitza etxe bat gutxiago da. Udalak premiaz jokatu beharko luke etxebizitza bat eskuratu nahi dutenen egoera zailaren aurrean. Martxoan EAJ-PSE eta Elkarrekin Podemos sinatutako zerga-akordioari esker, Euskadiko udalek OHZren % 150erainoko erreklama aplikatu ahal izango diete hutsik dauden etxebizitzetara, merkaturatu daitezkeen. Zeren zain dago udal-gobernua hori aplikatzeko?